

Letran Basilikaren sagarapena (A)

LEHENENGO IRAKURGAIA

Ura ikusi nuen tenpluaren hegoaldeetik irten, eta bizia sortuko du doan leku guztietan.

Ezekiel profetaren liburutik 47,1-2. 8-9. 12

Egun haietan, tenpluko sarrerara eraman ninduen gizonak. Ura ikusi nuen tenpluko ate azpitik irten eta ekialdera joaten, tenplua ekialdera begira baitzegoen. Ura tenpluaren hegoaldeetik, aldarearen hegoaldeetik, behera isurtzen zen.

Gizonak tenplutik irtenarazi ninduen iparraldeko atetik, eta kanpotik itzulia eginarazi zidan ekialdeko sarreraraino. Eskuinaldeetik zihoan ura isurian.

Esan zidan gizonak: «Ur hauek ekialdera doaz, Araba haraneraino jaisten dira eta Itsaso Hilean amaitzen. Itsasoratzean, hango ur ustelak ondu egingo dituzte.

Erreka helduko den edonon, mota guztietako piztiak biziko dira eta arrain asko izango; itsasoko urak on bihurtuko dira, eta bizia sortuko du doan leku guztietan.

Errekaren bi ertzetan, mota guztietako fruta-arbolak haziko dira; ez zaizkie hostoak sekula zimelduko, eta etengabe emango dituzte fruituak, hilero emanaldi bat, santutegitik ateratzen den urak ureztatzen baititu. Fruituak elikagai izango dira, eta hostoak sendagai».

Jaunak esana.

SALMOA

Salmoa 45, 2-3. 5-6. 8-9

R.

Ibai baten adarrek alaitzen dute Jainkoaren hiria.

Goi-goikoak bere bizilekua sagaratu du.

Jainkoa dugu babesleku eta indar,
larrialdian laguntzaile seguru.

Ez dugu, beraz, beldurrik,
nahiz eta lurrak dardara egin
edota mendiak itsas hondora amildu. **R.**

Ibai baten adarrek alaitzen dute Jainkoaren hiria.

Goi-goikoak bere bizilekua sagaratu du.

Jainkoa erdian duela, ez du koloka egiten,
goiz-goizetik laguntzen dio Jainkoak. **R.**

Jaun ahalguztiduna gurekin!

Jakoben Jainkoa gure gotorleku!
Zatozte, ikus Jaunaren egintzak,
lurrean egin duen iraulketa:
mundu osoan guduak geldiarazi. **R.**

BIGARREN IRAKURGAIA

Jainkoaren tenplu zarete.

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik 3,9c-11. 16-17

Senideok: Jainkoak eraikitzen duen etxea zarete.

Jainkoak eman didan dohainaren arabera, nik oinarria ezarri dut, etxegile trebeari dagokionez; baina beste batek jasotzen du gainean eraikina. Ikus beza bakoitzak nola eraikitzen duen.

Argi dago inork ez dezakeela ezarria dagoen oinarria besterik ezar; eta oinarri hori Jesu Kristo da.

Ez al dakizue Jainkoaren tenplu zaretela eta Jainkoaren Espiritua zuengan bizi dela?

Jainkoaren tenplua hondatzen duena, hondatu egingo du Jainkoak, Jainkoaren tenplua santua baita: tenplu hori zuek zarete.

Jaunak esana.

Aleluia 2 Cro 7,16

Aleluia, aleluia.

Tenplu hau hautatu eta sagaratu dut,
-dio Jaunak-
beti nire bizileku izan Darin. Aleluia.

EBANJELIOA

Bere gorputzaren tenpluaz ari zen.

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joan liburutik 2,13-22

Hurbil zen juduen Pazko-jaia, eta Jerusalemara joan zen Jesus.

Tenpluan merkatariak aurkitu zituen idi, ardi eta usoak saltzen, eta diru-trukatzaileak ere bai, han eserita. Jesusek, lokarriz zartailu bat eginez, tenplutik kanpora bota zituen denak, baita ardiak eta idiak ere; eta trukatzaileen diruak sakabanatu eta mahaia irauli egin zituen. Uso-saltzaileei esan zien: «Kendu hemendik hau dena. Ez egin nire Aitaren etxea merkatu-etxe».

Ikasleei, Liburu Santuak dioena etorri zitzaien gogora: *Zure tenpluaren maiteminak erreko nau.*

Orduan, galdetu zioten judu-agintariek:

–Zer seinale ematen diguzu hori egiteko aginpidea duzula frogatzeko?

Jesusek erantzun zien:

–Desegizue tenplu hau eta hiru egunetan berreraikiko dut.

Juduek ihardetsi zioten:

–Berrogeita sei urte behar izan dira tenplu hau eraikitzeke, eta zuk hiru egunetan berreraikiko duzula?

Hura, ordea, bere gorputzaren tenpluaz ari zen.

Horregatik, hildakoen artetik piztu zenean, esandako hori gogoratu zitzaien haren ikasleei, eta sinetsi egin zuten Liburu Santuko eta Jesusek esandako hitza.

Jaunak esana.

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>